



## **GURASOEI ZUZENDUTAKO** **JARDUNALDIAK**

TOKIA: Larraulgo eskolan.  
DATA: 2011ko apirilaren 2an

### **EGITARAUA:**

9:30: Harrera.

9:45- 10:45: Tailerren lehenengo saioa (parte hartzaileak bi taldetan banatuko ditugu bi txandatan bi tailerretan parte hartu ahal izateko).

- A. « **Ingelesa eskola txikietan eta adin desberdinetako haurrak gela berean egoteak dakartzan onurak** » Mare Goikoetxea.
- B. « **Errespetu faltaren atzean zer dago ?** » Juan Carlos Alonso.

10:45- 11:45: Tailerren bigarren saioa.

11:45- 12:15: Atsedena (mokadutxo bat izango da parte hartzen duten guztientzat, umeak barne).

12:15- 13:15: Hitzaldia: "**Eskola Txikietako ardatz metodologikoak**"  
Elena Laiz.

**ZAINTZA ZERBITZUA EGONGO DA**



## **LANDUKO DIREN GAIEN NONDIK NORAKOAK**

### **1. TAILERRAK :**

- 1. « Ingelesa eskola txikietan eta adin desberdinetako haurrak gela berean egoteak dakartzan onurak ».**
  - a. Eduki minimoak eta metodologia.
  - b. Ziklo batetik besterako ikasleen bilakaera.
  - c. Adibide praktikoak.

Gabiriako eskola txikian ingelesa irakasten duen Mare Goikoetxeak eskainiko digu tailer hau. Gabirian 6 urte daramatza ingelesa erakusten beste arlo batzuen artean, bertan INEBI proiektua ardatz harturik lantzen dute ingelesa nahiz eta berrikuntzak txertatu beharra izaten duten legeak eskatzen duenaren arabera.

### **2. « Errespetu faltaren atzean zer dago ? »**

Donostiako .Peñaflorida eta Usandizaga institutueta psikologo lanetan aritzen den Juan Carlos Alonso izango da gidaria. Gurasoei zuzendutako formazio edo jardunaldi saioak prestatzen aritzen da, ohiko psikologo lanaz gain.

### **2. HITZALDIA: "Eskola Txikietako ardatz metodologikoak"**

Elena Laiz Sasiain-en eskutik, gure eskola txikietan aplikatzen den metodologiari buruzko azalpenak entzun ahal izango ditugu.

Elena Laiz Sasiain-ek irakaskuntzan 32 urte daramatza. Horietako 20 Zizurkilgo San Millan eskola txikian eman ondoren, azken 4 ikasturteetan Lasarteko berritzegunean dago Eskola Txikietako irakasleen formazio-arduradun "adin-aniztasuna" izeneko mintegien bitartez.

**ZENBAT GURASOK PARTE HARTUKO DUTEN JAKIN BEHARRA  
DUGUNEZ, BETE EZAZUE ARREN ONDORENGO GALDEKETA ETA  
GURASO ELKARTEETARA EDOTA [irati@eskolatxikiak.org](mailto:irati@eskolatxikiak.org) HELBIDERA  
BIDALI.**

1. BAI, jardunaldietan parte hartzea gustatuko litzaiguke. (guraso/gurasoen izen/abizenak)
  - i. Izen/abizenak:
  - ii. Herria:
    - a. Zaintza zerbitzua BAI behar dut.
      - a. Izen/abizenak:
      - b. Adina:
      - c. Herria:
    - b. EZ, ez dut zaintza zerbitzurik behar.
2. EZ, ez dut jardunaldietan parte hartuko.

